

## **2011-02-15eko EZOHIKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta hamaikagarren urteko otsailaren hamabostean, arratsaldeko 20:00ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Jose Luis Olano Zubeldia, Agustin Zubeldia Iraola, Eugenio Loidi Garmendia, eta Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Aitor Lasa Olalde jaunak.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA**

**AURREKO AKTAK ONARTZEA (10-11-23; 10-12-16).**- 2010eko azaroaren 23ko, eta 2010eko abenduaren 16ko ezohiko saioen aktaren zirriborroak ikusita, udalbatzak aho batez onartzea erabaki du.

### **BIGARREN GAIA**

#### **ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkateak honako dekretuen berri eman dio udalbatzari:

-2010-11-17ko 125/10 Dekretua: Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuota osoaren %50eko hobaria ematea.

-2010-11-18ko 126/10 Dekretua: Euskaltel Saren izenean, Irurako Etxezarreta kalean, Gregorio Amezttoy kalean, eta Kale Nagusian, udaleko komunikazio-azpiegituren azterketa egiteko udal baimena ematea.

-2010-11-18ko 127/10 Dekretua: INMO-IRURA, HIGIEZINEN ZERBITUAK-i, fatxadan publizitate argi-kartela jartzeko udal baimena ematea.

-2010-11-19ko 128/10 Dekretua: Irurako Kale Nagusia, 25 eraikinaren inguruko itxitura pribatua aldaketa batzuk egiteko udal baimena ematea.

-2010-11-19ko 129/10 Dekretua: Onartzea Iruran ariketa fisikoa eta bizikleta elektrikoaren erabilera sustatzeko programa. 65 urtetik gorako gizon eta emakumei zuzendua.

-2010-11-19ko 130/10 Dekretua: 22.621,30€tako batuketa duten San Migel jaiei dagozkion fakturak onartzea:

-2010-11-19ko 131/10 Dekretua: Onartzea Irurako bake epaitegirako diru-laguntza eskabidea, Epainet erabiltzeagatik 350€ eta Justizia net sistema erabileragatik, 200€ko diru-laguntza eskabidea.

-2010-11-22ko 132/10 Dekretua: Antonio Lasa Arakistaini baimena ematea Artxupia zonan (Tolosa) sarrera duen udaleko landa pista erabiltzeko, baso ustiapenerako.

-2010-11-29ko 133/10 Dekretua: Gazte eta Kulturunean hainbat ekintza edo zerbitzu emateko 2010-2011 ikasturtean zehar hitzarmenak onartzea.

-2010-12-01ko 134/10 Dekretua: Uko egitea urbanizatzeko lizentzia eskaerari, 6 ahuntzentzako estalpea eraikitzeko, Kale Nagusiko 17-19 zenbakietako eraikinen atzealdeko finka garbi mantentzeko helburuarekin.

-2010-12-02ko 135/10 Dekretua: 44.527,12€-ko batuketa duten azaroa hilabeteari dagozkion fakturak onartzea:

-2010-12-14ko 136/10 Dekretua: Yolanda Loitegui Yabeni, trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita edo libre egotea.

-2010-12-14ko 137/10 Dekretua: José M<sup>a</sup> Echeverria Sagardia trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita edo libre egotea.

-2010-12-14ko 138/10 Dekretua: Transportes Gruas Usabiaga S.A.-ri baimena ematea, garraio berezia erabiltzeko kale, bide eta udal bideetan, 2010eko abenduaren 15etik 16rako gauean eta 16tik 17rako gauean.

-2010-11-16ko 139/10 Dekretua: Udal honetako biztanleen erroldan izen ematea irautsi izana adieraztea eta, ondorioz, baja ematea, ABDERRAHMANE TAYEFi.

-2010-12-20ko 140/10 Dekretua: Gastu hauen xedapena onartzea:-Urbabil, haur parkeko jokoak eta lanak: 10.769,86 euro gehi 1.698,66 euro (%18 BEZ), Guztira: 11.135,66 €-ko aurrekontua duena.

-2010-12-23ko 141/10 Dekretua: gizarte larrialdietarako laguntzak ematea.

-2010-11-23ko 142/10 Dekretua: Atarki Elkartea S.L.P. enpresari esleitzea, Irurako Trinketea Berritzeko eta Birmoldatzeko Proiektuari dagozkionak.

-2010-12-30ko 143/10 Dekretua: Euskal Forging S.A. sozietateak Katategi Bailarako 10 zenbakiko industrialdean duen finka industrialeko bi lursail bereizteko lizentzia aurkeztu du.

-2011-01-11ko 01/11 Dekretua: 2010eko abenduko fakturak onartzea.

-2011-01-18ko 02/11 Dekretua: Euskatelen Telekomunikazioetarako Nodo Optiko bat instalatzeko baimena ematea.

-2011-01-18ko 03/11 Dekretua: Naturgas Energia-ri 714,10€ likidatzea erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatik tasagatik.

-2011-01-18ko 04/11 Dekretua: France Telecom España S.A.-ri 39,26€ likidatzea erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasagatik.

-2011-01-18ko 05/11 Dekretua: udaleko Etxebizitza Tasatuen Eskatzaileen Erregistroan eskatzaileei alta ematea.

-2011-01-19ko 06/11 Dekretua: 15.386,57€ko gastuen xedapena onartzea.

-2011-01-28ko 07/11 Dekretua: udal langileari, adingabea zaintzeko %20ko arduraldira izatera pasatzeko baimena ematea.

-2011-01-28ko 08/11 Dekretua: udal langileari, adingabea zaintzeko %60ko arduraldira izatera pasatzeko baimena ematea.

-2011-01-28ko 09/11 Dekretua: Naturgas Energia-ri 4.318,47€ likidatzea erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasagatik.

-2011-02-02ko 10/11 Dekretua: 2011ko urtarrileko fakturak onartzea.

-2011-02-03ko 11/11 Dekretua: Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren kuota osoaren %50eko hobaria ematea.

-2011-02-07ko 12/11 Dekretua: bi langile egun osoko jardunaldiarekin eta 3 langile egun erdiko jardunaldiarekin kontratatzea.

## **HIRUGARREN GAIA**

**ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, SHARE KALEKO 7.EKO UDALPARTZELA BESTERENTZEA, 6 UDAL-ETXEBIZITZA TASATUKO ERAIKIN BAT ERAIKITZEKO, BERE GARAJE ETA TRASTELEKUEKIN.**

**APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE ENAJENACIÓN DE PARCELA MUNICIPAL EN SHARE KALEA, 7 PARA CONSTRUIR UN EDIFICIO DE 6 VIVIENDAS TASADAS MUNICIPALES, GARAJES Y TRASTEROS Y APROBACIÓN DEL PLIEGO DE CONDICIONES CORRESPONDIENTES.**

Udalaren jabetzakoa da Share kalea 7 zenbakiko 238 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Lursail hori egonkortutako lurzoru urbanizagarri moduan sailkatuta dago, eta bertan 6 etxebizitza eraiki daitezke, udaleko hirigintza antolamenduari jarraiki. Era berean, Lurzoruaren Udal Ondarearen parte da.

Este Ayuntamiento es propietario de una parcela con una superficie de 238 m<sup>2</sup>., sito en Share kalea, 7. Dicha parcela está clasificada como suelo urbano consolidado y se posibilita la construcción de 6 viviendas, de acuerdo con el planeamiento urbanístico municipal. Así mismo forma parte del Patrimonio Municipal del Suelo.

Hori dela eta, Udalak lursaila jabetzan saldu nahi du, 6 udal etxebizitza tasatu eta beren eranskinak eraikitze eta saltzeko, Irurako Udal Etxebizitza Tasatuen Udal Arautegiaren arabera. Halaber, esleipendunak Udalari beheko

Ante ello este Ayuntamiento quiere proceder a su venta en propiedad para la posterior construcción y venta de 6 viviendas tasadas municipales con sus anejos, de acuerdo con el Reglamento Municipal de Viviendas Tasadas Municipales de

solairuan dagoen lokala eman beharko dio, terrazarekin eta sotoko lokalarekin-trastelekuarekin.

Ikusita aplikazioko legedia.

Ikusita idazkari kontu-hartzailearen txostena.

Udalak honako hau erabaki du, aho batez:

Lehena.- Share kalea 7 zenbakiko udal-lursaila erabateko jabetzan saltzea onartzea, 6 udal etxebizitza tasatu eraikitzeko, beren eranskinekin.

Bigarrena.- Prozedura ireki bidez egingo den esleipena arautuko duten Baldintzen Plegua onartzea.

Hirugarrena.- Esleipen prozedurari hasiera ematea, eta hiru iragarki argitaratzea.

Laugarrena.- Edonola ere, salmenta Lurzoruaren Udal Ondarearen baliabidea izango da, eta, hortaz, hari atxikita egongo da.

Erabaki hau erabatekoa da administrazio bidean.

Irura. Así mismo el adjudicatario debe entregar al Ayuntamiento el local sito en planta baja junto con su terraza y un local trastero sótano.

Visto la legislación aplicable.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

La Corporación acuerda por unanimidad de los presentes lo siguiente:

Primero.-Aprobar la venta de la parcela municipal de Sharea Kalea, 7 en propiedad plena para la posterior edificación de 6 viviendas tasadas municipales con sus anejos.

Segundo.-Aprobar el Pliego de Condiciones que va a regir la adjudicación que se realizará por procedimiento abierto.

Tercero.-Iniciar el procedimiento de adjudicación con la publicación de los Anuncios correspondientes.

Cuarto.-En todo caso, el importe de la venta constituirá recurso del Patrimonio Municipal de Suelo y por lo tanto afecto al mismo.

Este acuerdo es definitivo en vía administrativa.

## LAUGARREN GAIA

**ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, SHARE KALEKO 7.EAN ERAIKIKO DIREN 6 UDAL-ETXEBIZITZA TASATU ESLEITZEKO BALDINTZEN AGIRIA.**

Udal honek aurreko gai-zerrendan erabaki du Share kalea 7 zenbakiko udal-lursaila saltzeko prozedurari hasiera ematea, sustatzaileak 6 udal etxebizitza tasatu eraiki ditzan. Hori dela eta, Baldintzen Plegua onartu behar da, etxebizitza horien esleipendunak hautatzeko, Irurako Udal Etxebizitza Tasatuen Udal

**APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE PLIEGO DE CONDICIONES PARA ADJUDICACIÓN DE 6 VIVIENDAS TASADAS MUNICIPALES A CONSTRUIR EN SHARE KALEA, 7.**

Este Ayuntamiento ha acordado en el punto anterior iniciar el procedimiento de venta de parcela municipal sita en Share Kalea, 7 para la posterior construcción por el promotor de 6 viviendas tasadas municipales. Ante ello es necesario aprobar el Pliego de Condiciones para seleccionar a los adjudicatarios de dichas viviendas de

Arautegiak jasotakoa betez.

Hori horrela, bertaratu diren udalkideek aho batez onartu dute ondokoa:

Lehena.- Baldintzen Plegua onartzea, Share kalea 7 zenbakiko lursaileko 6 udal etxebizitza tasatuen eta beren eranskinen erabateko jabetza izango duten esleipendunak hautatzeko.

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.

Erabaki hau erabatekoa da administrazio bidean.

acuerdo con lo señalado en el Reglamento Municipal de Viviendas Tasadas Municipales de Iruña.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes lo siguiente:

Primero.-Aprobar el Pliego de Condiciones para seleccionar los adjudicatarios en propiedad plena de 6 viviendas tasadas municipales con sus anejos en la parcela de Share Kalea,7.

Segundo.-Proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa e iniciar el procedimiento de adjudicación.

Este acuerdo es definitivo en vía administrativa.

#### **BOSGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, BADAGOKIO, IRURAKO BAKE-EPAILAREN HAUTAKETA.**

Kontutan harturik, gaur egungo Irurako Pake Epaitegiko Lehen Epailera eta ordezkaria izendatuak izan zirenetik 4 urte igaro direla, kargu berriak izendatzeari ekitea dagokio.

Kontutan harturik, interesik zutenek eskaerak aurkezteko dagokion deialdia zabaldu zela Alkatetazaren Bandoaren bidez eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2010eko irailaren 15ean iragarkia argitaratu ondoren, instantziak aurkezteko gehieneko epea urriaren 14<sup>a</sup> arte egon zela zabalik.

Kontutan harturik, eskaera hauek aurkeztu direla:

- Izaskun Luluaga Zubelzu Andrena  
Maia Arregi Goñi Andrena
- Mikel Garmendia Uranga Jnarena

#### **APROBACION, SI PROCEDE, DE NOMBRAMIENTO DE JUEZ DE PAZ Y SUSTITUTO.**

Considerando que ha finalizado el periodo de 4 años, para el que fueran nombrados los actuales Juez de Paz titular y sustituto, del Juzgado de Paz de Iruña, es necesario proceder al nombramiento de los nuevos cargos.

Considerando que se ha efectuado la correspondiente convocatoria pública, para presentar solicitudes por los interesados, mediante Bando de la Alcaldía, y anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa con fecha 15 de septiembre de 2010, y fijando el plazo límite de presentación de instancias el 14 de octubre de 2010.

Considerando que se han presentado las siguientes solicitudes:

- La de Izaskun Luluaga Zubelzu.
- La de Maia Arregi Goñi
- La de Mikel Garmendia Uranga

-Maitane Agirre Olano And.-  
rena

Kontutan harturik, proposatu-tako pertsonak, betetzen dituztela aipatu karguetarako izendatuak izateko adierazitako baldintzak.

Ikusirik 1985eko uztailaren 1eko Botere Judizialeko lege organikoko 101 art.-an eta hurrengoetan eta bere 1995eko ekainaren 7ko Arautegian adierazten dena.

Ikusirik Udal honetako Idazkari-Artekariak, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileko 54 art.-an erabakitakoaren arabera igorritako txostena.

Horren aurrean, Udalbatzak bertan daudenen ahobatez, zeinak, aipatu Lege Organikoko 101 art.-an erabakitakoaren arabera, Udalbatzak partaideen zilegizko gehiengo osoaren aldeko botua ordezkatzeko duten, ondorengo erabakitzen du:

Lehenik.- Irurako Bake Epaitegiko Lehenengo Bake Epailetarako, N.A.N.-ren zka. 72.436.985 duen eta Irurako Zillar Kalea 9 helbidea duen Izaskun Luluaga Zubelzu And. izendapena proposatzea.

-Irurako Bake Epaitegiko Ordezko Bake Epailetarako, N.A.N.-ren zka. 44.166.091-L duen eta Irurako Etxezarreta Kalea, 15 behea D bizi den Maia Arregi Goñi and.-aren izendapena proposatzea.

Bigarrenik.- Honoko jakinarazpen honen berri izan ondorengo 15 egun naturaletako gehienezko epean, interesdunek, karguak onartzen dituztela eta indarrean dagoen legedian adierazten diren kargu hauen ihardueretarako ezintasun edo inkompatibilitate kasuetako bakar bat ere ez dutela

- La de Maitane Agirre Olano

Considerando, que las personas propuestas reúnen las condiciones señaladas, para ser nombradas para dichos cargos.

Considerando lo suscrito en el art. 101 y siguientes de la Ley Orgánica del Poder Judicial, de 1 de julio de 1.985 y su Reglamento de 7 de junio de 1.995.

Visto el informe emitido por el Secretario-Interventor de este Ayuntamiento de acuerdo con lo dispuesto en el art. 54 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, que representan el voto favorable de la mayoría absoluta legal de miembros de la Corporación, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 101 de la citada Ley Orgánica, lo siguiente:

Primero.- Proponer el nombramiento de Juez de Paz titular del Juzgado de Paz de Irura, a D<sup>a</sup> Izaskun Luluaga Zubelzu, con D.N.I. núm. 72.436.985 y domicilio en este municipio Zillar Kalea nº 9.

-Proponer el nombramiento de Juez de Paz Sustituto del Juzgado de Paz de Irura, a D<sup>a</sup> Maia Arregi Goñi, con D.N.I. nº 44.166.091-L y domicilio en Irura, Etxezarreta 15 bajo D.

Segundo.- En el plazo máximo de 15 días naturales, a partir de la notificación de la presente, los interesados deberán suscribir la correspondiente declaración de la aceptación de los cargos y de no estar incurso en ninguno de los casos de incapacidad o incompatibilidad, para el ejercicio de los mismos, señalado en la

aldarrikatzen dutela sinatu beharko dute.

Hirugarrenik.- Akordio honen jakinarazpena eta Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Lehendakaritzaren dagokion dokumentazioa tramitatzea, bere izendapenerako eta kargu hartzeari ekiteko.

Erabaki hau erabatekoa da administrazio bidean.

legislación vigente.

Tercero.- Tramitar certificación de este acuerdo, junto con la documentación correspondiente a la Presidencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, para su nombramiento y toma de posesión.

Este acuerdo es definitivo en vía administrativa.

### **SEIGARREN GAIA**

**IRURAKO ZERGEN ORDENANTZEN ALDAKETAREN PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Alkatetzak jakinarazi du udaltasa batzuk aldatzeak omen dela, Urhornidurarako Tasa, bereziki, kostuigoerari egokitzeko, Ibiur Presatik egingo baita hornidura.

Idazkari kontu-hartzailearen txosten ekonomiko-finantzarioa ikusita, zerga arloan indarrean dagoen legediari jarraiki, Gipuzkoako Toki Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua ,bereziki, aho batez erabaki dute honako hau:

Lehenengoa.- Behin-behinean onartzea Udal Zerbitzuen Prestazio Tasen Ordenantza Fiskala aldatzea, urhornidurarako tasa, bereziki, 2011ko apirilaren 1etik indarrean sartuko dena.

#### **1.- UR-HORNIDURAREN TASAK:**

Ur-hartze berria: ..... 15 €  
Zerbitzua berrerabiltzea ..... 25 €

**APROBACIÓN SI PROCEDE, DE MODIFICACIÓN DE ORDENANZAS FISCALES.**

Por parte de la Alcaldía se hace saber la conveniencia de la modificación de algunas tasas municipales y en concreto de la Tasa por Suministro de Agua de cara a acomodarla al creciente costo de la misma al incorporarse el suministro desde la Presa de Ibiur.

Visto el informe económico-financiero del Secretario-Interventor y de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente en materia fiscal, en concreto la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, se acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

Primero.-Aprobar con carácter provisional la Modificación de la Ordenanza Fiscal de las Tasas por Prestación de Servicios Municipales y en concreto las tarifas de la Tasa por Suministro de Agua que quedaría de la siguiente forma y que entrará en vigor a partir del 1º de abril de 2011.

ETXEBIZITZAK	
a) Kuota finkoa:	6,00 €
b) Kontsumo-kuota:	
3 hilero 20 m <sup>3</sup> arte/hiruhilekoa	0,40 €/m <sup>3</sup>
20 m <sup>3</sup> -tik 80 m <sup>3</sup> arte/hiruhilekoa	0,50 €/m <sup>3</sup>
80 m <sup>3</sup> -tik gora/hiruhilekoa	0,65 €/m <sup>3</sup>
DENDA, GARAJE ETA TABERNAK	
a) Kuota finkoa:	6,00 €
b) Kontsumo-kuota:	
3 hilero 30m <sup>3</sup> arte/hiruhilekoa	0,45 €/m <sup>3</sup>
30 m <sup>3</sup> -tik 100m <sup>3</sup> arte/hiruhilekoa	0,57 €/m <sup>3</sup>
100 m <sup>3</sup> -tik gora/hiruhilekoa	0,72 €/m <sup>3</sup>
ENPRESAK	
a) Kuota finkoa:	10,00 €
b) Kontsumo-kuota:	
3 hilero 40 m <sup>3</sup> arte/hiruhilekoa	0,57 €/m <sup>3</sup>
40 m <sup>3</sup> -tik 200 m <sup>3</sup> arte/hiruhilekoa	0,72 €/m <sup>3</sup>
200 m <sup>3</sup> -tik 500 m <sup>3</sup> arte/hiruhilekoa	0,88 €/m <sup>3</sup>
500 m <sup>3</sup> -tik gora/hiruhilekoa	0,94 €/m <sup>3</sup>
AISIALDI ETA JOLAS JARDUERE-TAKO ERABILPENA:	
a) Kuota finkoa:	6,00 €
b) Kontsumo-kuota:	
3 hilero 40 m <sup>3</sup> arte/hiruhilekoa	0,57 €/m <sup>3</sup>
40 m <sup>3</sup> baino gehiago/hiruhilekoa	0,72 €/m <sup>3</sup>
UDAL-EREMUAN EZ DAUDEN ENPRESEN ERABILERA:	
a) Kuota finkoa:	10,00 €
b) Kontsumo-kuota:	
3 hilero, 20 m <sup>3</sup> arte/hiruhilekoa	0,63 €/m <sup>3</sup>
20 m <sup>3</sup> baino gehiago/hiruhilekoa	0,82 €/m <sup>3</sup>

Bigarrena.- Izapidetutako akordioa eta espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak

Segundo.-Someter el acuerdo y el expediente tramitado a información pública, de acuerdo con las normas señaladas en la Norma Foral 11/1989,



jasotakoa betez, eta dagokion iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Erakunde honetako iragarki-taulan argitaratzea. Izapidetzerako, arau hauek beteko dira:

a) Espedientea Udaleko Idazkaritza-Kontu hartzaitzan egongo da.

b) Erreklamazioak aztertzeko eta aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa izango da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik, Udal Bulegoko orduetan.

c) Erreklamazioak uztailearen 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan jasota datozenek aurkeztu beharko dituzte.

d) Erreklamazioak Irurako Udaleko erregistro orokorrean edo Administrazio Prozedura Legearen 66. artikuluan jasotako tokietan aurkeztu beharko dira.

e) Erreklamazioa Udalbatzara eraman beharko dute.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betiko bihurtuko da, eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Akordioa izapidetze jarduera bat da.

de 5 de Julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa y mediante la publicación del Anuncio correspondiente en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y Tablón de Anuncios de esta Entidad. Las normas que regulan este trámite serán las siguientes:

a) Lugar donde se encuentra el expediente: Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento.

b) Plazo para examinar y presentación de reclamaciones: 30 días hábiles desde el día siguiente hábil al de la publicación de este Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en horas hábiles de la Oficina Municipal.

c) Quién puede presentar reclamaciones: Los señalados en el art.17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) Donde se pueden presentar: En el registro General del Ayuntamiento de Irura o en los lugares señalados en el art. 66 de la Ley de Procedimiento Administrativo.

e) Ante quién se presente la reclamación: El Pleno del Ayuntamiento.

Tercero.- En el caso de que no presente ninguna el acuerdo devengará en definitivo y se procederá a la publicación de su texto completo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es un acto de trámite.

## ZAZPIGARREN GAIA

**2011RAKO IRURAKO UDALAREN LANGILEEN EGUTEGIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**APROBACION, SI PROCEDE, DEL CALENDARIO LABORAL DE 2011 DEL PERSONAL DE ESTE AYUNTAMIENTO.**

Aditzera eman da Udal honetako lan-egutegirako proposamena, laneko jarduera eremu hauetarako:

Se da cuenta de la Propuesta de Calendario laboral del personal de este Ayuntamiento de las siguientes áreas

-Bulego orokorrak.  
-Obretarako eta zerbitzuetarako brigada.

-Kultura

Hori dela eta, akordioa onartzea erabaki dute, aho batez, irizpide orokor hauekin:

-Urteko jardunaldiaren bertaratzea 1.592 ordukoa izango da. Ordutegi murriztagoa duten egutegietan, aparteko orduak betetzeko lan-poltsa osatuko da.

-Egutegia aurkeztu ez duten taldeek erreferente izango dute Bulego Orokorretarako egutegia.

-Jardunaldi orokorra: 35 ordu astero, astelehenetik ostiralera.

-Egutegian ez dago "zubirik".

-Oporrak: 24 lanegun, astelehenetik ostiralera,

-Jaiegun ofizialak (estatu mailakoak, autonomikoak eta tokikoak) : 14.

Akordioa behin betikoa da administrazio bidean.

de trabajo:

-Oficinas Generales.

-Brigada de Obras y Servicios.

-Cultura.

Ante ello, se acuerda por unanimidad de los presentes aprobarlos con los siguientes criterios generales:

-La jornada anual de presencia efectiva será de 1.592 horas. En aquellos calendarios que se señala un horario inferior el resto hasta ese total formará una bolsa para cubrir horas extras.

-Para los colectivos que no hayan presentado calendario el referente será el de Oficinas Generales.

-Jornada General: 35 horas a la semana, de lunes a viernes.

-No hay "puentes" en el calendario.

-Vacaciones: 24 días laborales de lunes a viernes.

-Días Festivos Oficiales entre estatales, autonómicos y locales: 14.

Este acuerdo es definitivo en vía administrativa.

## ZORTZIGARREN GAIA

**URAREN EUSKAL AGENTZIA  
ETA IRURAKO UDALAREN ARTE-  
KO KOLABORAZIO HITZARMENA  
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Uraren Euskal Agentziak Udalarekin lankidetzan aritzeko hitzarmen proposamena igorri du, uraren kanona kudeatzeko eta 181/2008 Dekretuko 21. artikulua zehazten dituen konpentsazioak zehazteko.

Hori horrela, bertaratu diren udalkideek aho batez onartu dute ondokoa:

**APROBACION, SI PROCEDE,  
DEL CONVENIO DE COLABORA-  
CIÓN CON ESTE AYUNTAMIENTO  
PARA LA GESTIÓN DEL CANON  
DEL AGUA.**

Por parte de la Agencia Vasca del Agua se remite propuesta de Convenio de colaboración con este Ayuntamiento para la gestión del Canon del Agua y la determinación de las compensaciones que fija el Decreto 181/2008 en su artículo 21.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

Lehenengoa.- Aipatu den hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Marimi Ugalde Zabala alkateari udalaren izenean eta ordezkari sinatzeko ahalmena ematea.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean.

Primero.-Aprobar el citado Convenio.

Segundo.-Facultar a la Sra. Alcalde-Presidente Marimi Ugalde Zabala para su firma en nombre y representación del Ayuntamiento.

Este acuerdo es definitivo en vía administrativa.

### **BEDERATZIGARREN GAIA**

#### **2011RAKO UEMAREN EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udalbatzak aho batez Uemako 2011.ekitaldirako ekarpena, 6.227€-koa, hain zuzen ere, onartzen du.

Este acuerdo es definitivo en vía administrativa.

### **HAMARGARREN GAIA**

#### **2011RAKO GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udalak aho batez onartu du Gipuzkoako Ur Partzuergoari urtero 26.783,46 €-ko ekarpena egitea, bazkide den aldetik, 2011ko ekitaldi ekonomikoari dagokiona, hain zuzen, Hornidura eta Saneamendurako Inbertsio Planetarako.

Erabaki hau erabatekoa da administrazioko bidean.

#### **APROBACION, SI PROCEDE, DE LA APORTACIÓN ANUAL AL CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA**

La Corporación acuerda por unanimidad de los presentes aprobar la aportación anual al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, en la que es socio, correspondiente al ejercicio económico de 2011 para los Planes de Inversiones de Abastecimiento y Saneamiento por importe de 26.783,46 €.

Este acuerdo es definitivo en vía administrativa.

### **HAMAHIKAGARREN GAIA**

#### **TOLOSALDEKO OSASUN-SISTEMA PUBLIKOARI BURUZ MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Tolosaldeko osasunaren euskal sistemaren organizazioari dagokionez, mozio honen berri eman dute:

Azken hilabeteotan Tolosako anbulatorioko hainbat espezialitate-zerbitzuen kontsultak bertan egiterari utzi dio Osakidetza eta Nuestra Señora de la Asunción klinika bidez ematen hasi da. Hori gertatu da, gutxien gutxien oftalmologiako, urologiako eta digestiboko kontsultekin. Horrek, anbulatorioaren espezialitate kontsulten etorkizunari buruzko kezka sortu du bai bertako langileen artean eta baita herritarren artean ere. Itxura batean, 2011ko otsailetik aurrera Osakidetza espezialitate-kontsulta guztiak aipatu klinika pribatuaren bidez egin nahi ditu. Horren ondorioz, osasun-sistema publikoa kaltetuta eta ahulduta geldituko da Tolosan eta Tolosaldean.

Bestetik, Tolosaldeko osasun-sare publikoak hutsune nabarmen bat du

eskualde-ospitalerik ez dagoelako bertan. Gure eskualdean indar eta pisu demografiko nahikoa izan dezake eskualde-ospitale bat izateko, horrela, osasun-sistema publikoaren eskaintza osatzeko eta herritarrek egokiago zerbitzatzeko.

Horregatik guztiagatik, mozio hau aurkeztu du, Irurako Udalaren osoko bilkurak honako du.

#### ONAR DEZAN:

1. Irurako Udalak Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo sailari Tolosako Anbulatorioari eta Tolosaldeko osasun-zerbitzuei buruz dituen asmoak azal diezazkiola eskatzea eperik motzenez
2. Tolosaldeko udalek aldarrikatzen dute, orain artean Tolosaldeko atentzio osoa, lehen arretako zein espezialitatea, eskaini den era berean jarraitzea aurrera begira mozio honetako 3. atala gauzatu artean

Irurako. Udalak Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo sailari eska diezaiola egin dezala azterketa sakona Tolosaldean eskualde-ospitale bat ezartzearen beharraz eta komenientziaz, beti ere, herritarren ongizatearen ikuspegitik eta kontsidera dezala eskualde-ospitale hori azpiegitura pribatu baten publikazioa baliatuz ezarri ote daitekeen,

Hori dela eta, Udalak aho batez erabaki du mozioa onartzea eta kalteak jasan dituzten erakundeetara bidaltzea.

Erabaki hau erabatekoa da administrazio bidean.

#### HAMABIGARREN GAIA

##### **IRURAKO GAZTE ASANBLADAREN DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA.**

Ikerne Lasa Salaberria andreak Irurako Gazte Asanbladaren izenean eta ordeztu proposatu du zaindariaren jaietan gazte festa eguna ospatu dadila, aurten beste urteetan baino gazte gehiago bildu baitu. Gehiengoak ikasleak dira, eta ezin dute ordaindu behar diren ekintzetan parte hartu, bazkarian, esate baterako. Horregatik, diru-laguntza bat eskatzen da, gazteek festetan parte hartzeko aukera izan dezaten, gainontzekoek bezala.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez erabaki du 750€-ko diru-laguntza ematea; orain, 400 € bakarrik ordaindu beharko dira, gainontzekoa aurretik ordaindu baita.

Akordioa behin betikoa da administrazio bidean.

#### HAMAHIRUGARREN GAIA

##### **TOLOSALDEKO 28 KANALA TELEBISTAREN DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA.**

TB 28 kanala entitateak diru-laguntzarako eskaera egin du, telekomunikazioen antena jartzeko, prezio hau baitu: 3.284,85€ gehi BEZ.

Hori horrela, bertaratu diren udalkideek aho batez onartu dute ondokoa:  
Lehenengoa.- Instalazioaren kostuaren erdia ordaintzeko diru-laguntza ematea: 1.642,45€ gehi BEZ.

-IFZ fotokopia:

-Diru-laguntza publikoak jasotzeko lege ukapenik ez duela egiztatzen duen aitorten erantzulea.

-Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean dituela erakusten duen ziurtagiria.

Bigarrena.- Diru-laguntza jasotzeko, agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

-Egindako gastua egiaztatzen duten fakturak.

Hirugarrena.- Edonola ere, instalazioa egin aurretik, Udal honetan obretarako lizentzia eskatu beharko du, eta baita ere udal ondareak erabiltzeko lizentzia.

Akordioa behin betikoa da administrazio bidean.

#### **HAMALAU GARREN GAIA**

#### **IRURAKO IKASTOLAREN DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA ESKOLA KIROLARI BURUZ.**

Irurako Ikastolak 3.000 euroko diru-laguntza eskatu du eskola kirolari dagozkio gastuetarako.

Hori horrela, bertaratu diren udalkideek aho batez onartu dute ondokoa:

Lehena.-Eskatutako diru-laguntza ematea; hori horrela, gastu egiaztagiriekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a)IFZ fotokopia.

b) Diru-laguntza publikoak jasotzeko lege ukapenik ez duela egiztatzen duen aitorten erantzulea.

c)Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean dituela erakusten duen ziurtagiria.

Akordioa behin betikoa da administrazio bidean.

#### **HAMABOS GARREN GAIA**

#### **GALDE ERREGUAK.-**

Gai-zerrenda honetan gai hauek jorratu dira:

a)Irurako Ikastolaren eskaeraren berri eman dute, udal lursailaren zati batean baratzea jartzeko, ikasleen jarduerarako.

b)Halaber, Irurako tabernekin asteburuetan sustatu ditzaketen musika jarduerak subentzionatzeko aukera proposatu dute.

c)Kultura Etxean kafe makina jartzeko aukera proposatu dute baita ere.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 22:15ean eman da amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari nauzuen honek dena EGIATZATZEN dut.